'TXIKI', MARRAZKILARI ETA HUMOREDUN: 1892, 1948

John Zabalo Ballarin-en azterketa kritiko batetarako zenbait ohar.

Irakurtzen berriki bukatua dut, unibertsitateratzeko juan-etorrietan, liburu xarmangarri bat (1) eta biziki gomendatzen diot irakurleari. John Zabalo Ballarinen egin txiste, ipunen irudi, kartel eta liburu azalen bilduma dakartzin liburua, Matxin Labaien tolosar artistak antolaturik: gogoz txalotzen dugu artista hau eta, aurrerantzean ere euskal humoristen bildumak egitera bultzatzen diogu. Gure artistek argitara ateraketa ezagutzeak, galiegoak eta katalanak, frantsesak eta espainolak ateratzen diren bezala, esan nahi du gure kultura geroz eta helduago dela eta hori pozgarri zait.

1.—ZABALO, INGELES-EUSKALDUNA.

John Zabalo, «Txiki», euskal jatorrikoa zen, Manchester-en jaio zen 1892an eta Londresen hil 1948an. Aipatzen ari naizen liburu honetan bildurik eta batera ikusteko eran ditugu hark egin txiste eta marrazkiak, «El Pueblo Vasco», «Argia», «Euskalerriaren alde» aldizkarietan eta zenbait liburutan: «Martin Txilibitu», «Xabiertxo», «Sabin euskaldun», «Garoa», «Arquitectura y grafia Vasca» argitaraturik eta bineturik bait zituen. Tamalez, ez zaigu esan nondik jasoa eta noizkoa den materiala (2). Errazago izango bait luke horrela arte-historiagileak, eta afizionatu soilak ere, haren eboluzioa nolakoa izan den eta haren estiloa beste artiste batzuenarekin alderatuz eta konparatuz —synkroniko eta diakronikoki.

Zabalo —Antonio M.ª Labaienek hitzaurrean esaten digunez— Hiru txuloko hauzoan hazi omen zen eta, horretxegatik, bere barne muinetan zituen orduango donostiarren ohiture eta zaletasunak. Donostiako eta Madrideko arkitektur eskoletan ibili zen baina osasunik ez eta utzi egin behar izan zituen ikasketak. Ez zen lerden gorputzez, ez eta handi; horregatik hartu zuen izengoititzat «Txiki». Pintatzetik eta marraztetik bizi zen eta, Arnetiñok esan digun bezala, hau dugu lehen euskal profesionala bere sailean. Haren arreba Ignaziak ere, «Normal» izengoitiz, marrazki xarmant eta polit batzuk utzi dizkigu. Baina atzer dezagun aipatu liburua.

2.—MODERNISMOA ETA HUMORE URDINA

Zabaloren humore eta marrazkia «Art Nouveau» edo «Modernismoan» eta geroztiko mogimenduetan finkatu zen, batik bat Kubismoan. «Art Nouveau» delakoa estilo iraultzaile bat izan zen, mende honen lehen urteetan Europa eta Ameriketako artista asko inspiratu zelarik estilo horretan. XIX. mendeko tradizionalismoaren aurkako erreakzio bat izan zen eta espazioaren zentzu berri bat ekarri zuen: Izadian inspiratua zen apein-systema berria eta marrari kulto bat sortu zuen.

Mundu hontan eta honen kontraesanen artean ibili zen John Zabalo. Honen marrazkia, Durerogan oinharrituriko neoklasizismoa (ikus «Euskalerrian Yakintza» eta «Blancos y Negros»-etako marrazkiak) eta modernismo eta kubismo biartean dabil, gaur oso atsegin bait dugu (ikus. «Xabiertxo» «Txomin arlote», liburu azalak eta 79. orrialdean hasten den txiste saila).

Ez nintzateke ausartuko Zabaloren humorea «arrosa» denik esaten, baina bai «urdina», sasoin hartan beste nazioetako marrazkilariena bezalakoxea. Humore sotil eta sanoa da, Euskal Herriarekiko idealismo eta bukolismo pixka batez hornitua baina ez xirtxila eta xoxoa. Gure herrian, gure herriko jendeengan eta egunoroko gorabeheretan erroturiko humorea da:

a) Haurren ateraldi bizkorrak.
b) Senar-emazte eztabaida eta burrukak.
d) Hauzokoen arteko burruka eta errietak.
e) Adiskideen arteko zirikadak.
f) Usario eta ohiturak.
g) Humore beltz absurdoa.

Gizarteko era guztietariko jendea agertzen zaigu: itsasgizon, eliztari, baserritar, bulego langileak, jende xelebrea, ezkongaiak, mozkorrek, jauntxo eta andereñoak, artistak eta idazleak, maisuak eta eskoleak. Hark maiteen zituen paisajeak: Donostia, Oinati, Durango, Irun eta baserri elderdi guztia.

Esan lezake irakurleak industri klasea falta dela. Baina nork aurki diezadake, Castelao eta Arteta salbu, sozial kontzientzia duen ate sail hortaz arduratzen den marrazkilaririk? XX. mendearen bigarren aldian sortzen da sozial humorea peninsula osoan eta gure marrazkilari hau lehen aldikoa dugu.

Zabaloren pertsonaien bidez ederki ediren dezakegu «felices veinte» deritzan sasoin hori nolakoa zen. Burgesia ttikiaren eta herri soilaren ohitura eta moden radiographia ederra ematen digu: jazkiak, sonbrero edo kapelak, bonbatxoak, loreak; orduango bizio eta riteak: otorduak, txokolatada, hezketa biajeak eta turismoa. Baina beti eklibrio handiz eta eta lintasun handiz. Haren marrazkiek badituzte ethnographi erroak bai eta gizarte erroak; gaur ez gara horiekin bat egongo, baina gaurkoa baino sasoin bareago hatekin bai, ados dator (erraza typoak, janzkerak, ohiturak); sasoin hura ere geurea izan genuen eta, gauzak bere horpoetatik ateratzen ez baditugu eta historiko ikuspegi bat baldin badugu, erraz geuregana dezakegu.

3.—ZABALO HUMOREGILE

Bere txisteak ez du Zabalok estilo jakin bat, marrazteko era lilo bat. Aldatu egiten du batetik bestera, Oraingo marrazkilariek bezala, hala nola Letamendia edoeta Olariaga. Zabalok ez du «estilo» arrugarririk. Hau txarra ala ona da? Ez dakit; haren obra osoan marra zuzen nahiz borobilaren ardura handiagoa ikusten da, marrazkarena baino, bolumenaren kezka handiagoa espazioarena baino. Pintore baino marrazkilari eta eskultoreago da; euskaldunon artean baritzeko ez danez. 79. orrialdean hasten diren txistetan bakarrik moderniste-kubiste bidea gehiago jarraitzen baitute, eta marko baten mugatzen dela iduri, horietan bai ikusten zaio «estilo» zehatzago bat, gaurko tankerara.

Hauetan, Zabalok konposizio zentzu handi bat ageri du, bolumena espazioan ongi taxutzen duelarik (ik. 95 eta 97. orrial.); hauetako humore sotil eta frantziskanoek, lirikoak aldika, marra goxo eta luzeskatoa sortzen du, TBOetako marrazkilari handien erara: ik. «Jai egun bat Poxpolinen errian».

Zabaloren humorean bada halako herri-kutsu bat, zirikatzaile eta ustez itxuragabekoa, irteera zorrotzekoa, euskal syntaxian hainbestetan ohi den bezala. Esate baterako, A-k erantzun logiko bat emango duela uste denean, logikarik gabekoa ematen dizu: A — A: logikoa ≠ A — B: ilogikoa = barregurea. Ez du falta humore beltz tantanik, zenbaitetan hil-kaja ere ikusten baita, gaur hain gustokoa den bezala. Humore absurdo eta izugarria duen txisterik ere ez da falta. Hitz joko eta hitz trukeak ere ez dira falta: Astomozkilea — Asroburuaga, gaur Forges-ek eta beste zenbait marrazkilarik egin ohi duen bezala.

Azkenik, txiste sortatik, mordoska bizi batek gaur ere balio du, 71. orrialdeak bezala, bai eta modari buruzko apunte batzuk ere 58. eta 77. orrialdeetan; hauek edozein antologian atera daitezke eta liburuaren azalean hobeki egongo lirateke (liburuaren azala pobrea da eta gusto txarrekoa).

Bukatzeko, «Txikiren» obran, marrazkia textoren oinarri dela esango nuke, textoari bere indarra eta zentzua emanaz. Hitzez asateko ere oso egoki dira txisteak. Marrazkia, esan nahi denaren zutoin eta irudi gertatzen da. Desekilibrio hau oso berezkoa dute XX. mende hasierako marrazkilari gehienek, Modernismoaren literatur karga handia baita, Maria Aurelia Capmany katelandar idazleak berriki egiaztatu duen bezala.

Orobat esan dezakegu «Txikiren» arrebaren humoreaz, honek «Normal» izengoitiz izenpetzen ditu bere lanak. Honen bururakizun eta lanak ez dira anaiarenak baino kaskarragoak. Sensibilitate guztiz finekoa da emakume hau.

Marrazkilari biok bere pertsonaientzat erabili dituzten konposizio-ereduak hauek dituzu: eta

4.—ZABALO MARRAZKILARI ETA IRUDIGILE

Zabalo, lehen esan dugunez, marrazkigile handia da eta, beste deusen gainetik, marra du maite. Garbi ikusten da hau, zein kartel eta biñetetan, zein liburuen irudietan. Bide jekina eta zehatza darama, etengabea ia eta itxia. Eta ongi ezagunak ditu bai gorputzaren eta bai Izadiaren ritmoaren ezkutuki guztiak.

Arrueen herri-estanpak diren antzera, Zabalok, Domingo Agirreren «Garoa»-rako egin zuen ethnographiko irudi sail bat. Euskal Herriko ohiturak eta paisajeak dakartzigu. Zeharka harturiko planoak erabiltzen ditu, hala nola zineau. Gizataide handiak oso maiz agertzen dira lan horietan. Ez zaigu ahaztu sasoin horretan abertzale mireak zabiltzela eta artistek bizkor ikusi dituztela eta beren lanetan zuzenki adierazi. Marra aski da eta gauzez eta pertsonez beterik egon arren, konposizioan dena garbi eta ordenatua dago.

Era berean eginak dira «Fernando Amezketarra» libururako irudiak, hautan lehen planoak indartsugoak daude, irudiak textoari indar berria damaiola. Liburuan osatuen eta hobekien dagoen «sonimag» litzateke hau, gaurko «tira» edo «historieten» antzera.

Neoklasikoago eta eztabaigarriago gertatzen dira «Blanco y Negro»-ko irudiak eta harako «Spots sanitarios» direlakoak. Marrazkia «emekiegi» egina dirudi eta inoiz Dureroren dibujoarekin senidetua. Egungo ikuspegiarentzat literarioegi eta arinegi gertatzen dira.

Baina Zabalok egiazko garrantzia hartu duen eta geroztiko euskal irudigileen artean eskola bat —haur literaturan batipat— sortu duen marrazki tankera harako «Txomin Arlote» eta «Xabiertxo» liburu xarmangarri eta bitxi horietakoa da (Inprima behar litezke berriz ere horrelako liburu horiek). Modernismoak eta, batez ere, kubismo inoiz estilizatu batek egiten dute «Txiki» marrazkilari eta arkitekto handi. Ba daki bolumen bat espazioan egiten, oraingo marrazkilarien antzeko soiltasun eta gustoz. Dena da xume eta ongi taxutua. Eta hortan datza, hain zuzen, haren merlica: haur batek jaso eta begietan gorde ditzakeen irudi argi eta xumeak egitean. «Txomin Arlote»-ko irudiak estilizatuago eta liaago gertatzen dira «Xabiertxo»-koak baino, hauek sendoago eta klasikoagoak bait dira. Baina aski litzateke bi liburu horiek, gure irudigile hoberenen artean Zabalo kontatzeko. Orobat ikusten da haren kartel eta liburu-azaletan, txistetan baino estetika hobea bait darabil haietan. «Txomin ikasle»-ren azala dugu aipagarri haren lanen artean.

Ikusten denez, antologia honetan denetarik aurki dezake irakurleak: gauza desberdinak, gusto ona eta humore ederra. Materiak ugari eta joria tarte on eta libertitue iragaiteko eta, halaber, gure herriaren subkonszientea psykologi, ethnographi, soziologi eta estetika aldetik aztertzeko.

Irudietan plasmatua dagoen herri bat beti da aztergarri eta ba du gureak, halazangoa! azterketa horien premia. Matxin Labayenen bilduma, beraz, ongi etorria dugu eta gai aportazio ederra.

EDORTA KORTADI

(1) Matxin Labayen: Txiki marrazkilari eta umoredun. Edit. Auñamendi 1973. Donostia.

(2) Zuzen behar litzateke huts hau hurrengo argitaldietan.

BEOBIDEREN OMENEZ

Bere Kristo gurutzatuei aburuak

Julio Beobide zenaren omenez, urriaren 11az geroztis Donostiako Galeria Estudio-n Julian Ugarte zarauztarrak antolatu duen eskultore berrien erakusketa ikusi dugu.

E. Txillida, N. Bazterretxea, R. Mendiburu eta R. Ugartek, eskultur lana maixuki aspaldi burutu zuten.

Txillidak, bere hiru modulo berriekin, aurpegi berri bat darakus. Lehenageko jungurak gogarazten ditu, baina bikain eraberriturik. Artista handi honen asmakizunak eten gabeko espiral batean goraka ari dira. Brontzezko plakak ere jarri zituen. Oso onak.

Bazterretxearena izugarria da. Orain pare bat urte agertu zuen erakusketan bide urraketa handiak erakutsi, eta, geroztik, hobetuz dator. Harbel eta karaitz zurizko plaketa grabatuak oso ondo zeuden.

R. Mendiburuk gauza gutti jarri zuen. Hormako oholean bere lanaren heldutasuna erakusten zigun. Baina, behar bada, ez hainbeste zintzilik jarri zituen kuadru-zilindro joko haietan. Hortan xinplegia iduritu zitzaigun. Dena dela, bide zabalagoetara eraman dezaketen asmo berriak ziren.

Ugarteren burdinazko lanetatik handiena biziki gustatu zitzaigun. Oso ona zen. Serigrafiak ere atsegingarriak.

Azkarate eta Murnak lana polito daramate, baina oraindik heldutasuna falta zaie. Era ezaguneko irudi batzuen menpeko ikusten ditugu oraindik. Zerbait berenik sortuko badute, nahi eta ez, joera hortatik irten beharra dute.

Atseginez ikusi genuen artista berriek Beobide neoklasikoaren omenaldiari eman dioten erantzuna.

Beobideren lanik, Kristo bukatu gabea soilik zen. Bi metrotako gorputza, etzanda, eta lantzen hasia zuen besoa bide. Irudi hau, Beobidek egin zituen Kristo gurutzatuetatik hoberena bide da. Hain zuzen gai hau izan zen artistaren obran garrantzitsuena.

Julio Beobide zumaiarraren lanetatik lanik bereziena Kristo gurutzatuak, izan ziren. Hamar-hamabiren bat egin zituen, eta denak trajediaren une desberdinetan, gora begira, Jainkoari erregutzeko momentutik heriotzak hartu arte. Antologiazko lan polita izango litzateke guzien argazkiz, gorputz osoko eta aurpegiak soilik, idazkiz adiaraziaz egitea. Bizitzatik heriotzarako pasarteaz artistaren aburuak erakutsiko lituzke.

Gainera, ohargarria da, Kristo horien aurpegi itxura, sudurretik gora behinik behin, Beobiderena berarena da. Autorretrato asko egin zuenez gero, gure ustez, haietan oinarritu zen, modelo gisa aurpegieran.

JUAN SAN MARTIN

Beobideren autorretratoa

Beobideren Kristo bukatu gabea